

## Udakiolaren bertso oroimena

Berak buruz ikasitako bertsoak, bideoan bilduta ▶ 4



JOSE MARI AMORRORTU ▶ REALEKO ENTRENATZAILEA

## «Inoiz ez nuen pentsatu hain giro nahasia aurkituko nuenik»

**EMAITZAK** ▶ Azkeneko bi partidetako emaitzek taldean giro baikorragoa eragin dutela dio

**NIHAT** ▶ «Turkiarra saltzeari buruzko zurrumurruekin oso kezkatuta nago» ▶ 6



Jose Mari Amorrortu Realeko entrenatzailea Ondarretan. EKAITZ AGIRRE



## Telefonia antena bat kendu dute Amara Berrin

**LAU URTEKO AUZIA** ▶ Bizilagunek antena jartzeko erabakia ez zuten aho batez hartu, eta epaileak dioenez, hori ezinbestekoa da ▶ 5

**EUSKOTREN** ▶

## Martxoaren 10ean zabalduko dute Lugaritzeko geltokia ▶ 8

**Zurriola Ikastola**

Indianoene, 1 - 20013 Donostia  
tel: 943-272587-zurriola@ikastola.net



**Barandiaran Lizeoa**

Manuel de Lardizabal, 26 - 20018 Donostia  
tel: 943-213355-barandi02@ikastola.net

Ongi etorri HITZA Donostiara!

## GUTUN@K ▶

## Ezinduen ezina

Behin baino gehiagotan errepikatu den kexa bat azaltzera nator HITZA egunkari sortu berrira. Izan ere, begibistakoa da badituela oraindik nahikoa oztopo gurpildun aulkietan dagoenak. Kaleak ez daude guztiz egokituak eta gainera, onartu zen bezala, Donostiako autobus publiko guztiek ez dute oraindik aulki hauentzako aldapa egokiturik. Berriki ikusi ahal izan dut ezagun batek duen ezintasuna autobus batera igotzeko. Egoera honetan, gurpildun aulkian dagoen pertsona batek, ezin du egunerokoa normaltasun txikian autobus egokitu baten zain egon behar duelako. Egoera honi erantzuna berehala eman behar zaiola iruditzen zait, berdintasunera bidean ezinbesteko baldintzetako bat baita.

MAIDER AGIRRE ▶ AMARA ZAHARRA

## LORETOPETIK ▶ XABIER OTAEGI (PAILAZOA)

## Agur t'erdi



**E**san behar duana isiltasuna baino ederragoa dela zihur ez bahago, ez ezpainik zabaldu», arabiarren atsoitz honek agurtzen nau eguneroko lana abiatzerakoan.

Baina jarduera mutua edukitzeko gonbite honek ez du nigan arraskasta handirik lortzen, maiz behar baino gehiago hitz egiten dut.

Behar fisiologikoa dut hizketa eta barnean dararamadana askatzeko izaten dudana premiak ez dit estetikari erreparatzeko aukerarik ematen.

Orain idazten ari naizenaren edertasun ezak ere ez nau batere kezkatzen, ez bai naiz gauza eder, bitxi eta liluragarriak idazteko sortua.

Baina IRUTXULO KO HITZAREN lehenengo aleari ongi etorria emateko aukerari ezin uko egin. Ohore handia da niretzat eta ezin isilik gelditu.

«Donostiako, Irutxuloko, Joxemari zahar eta gazte...» haiek ugaldtu egin gara. Joxemaritarraz gainera hor gara koxkatarrak eta erdialdekoak,

altzatarrek, Egia, Gros, Uliia, Marrutxipi, Loiola, Antigua, Amara, Añorga, Ibaeta, Aiete eta Intxaurrondokoak.

Serafin Baroja, Pepe Artola eta beste Irutxulotar zelebre haiek ondo azaldu ziguten danborra jo, oju egin eta pozez eta alai dantzatu bakarrik ez, bizi ere euskaraz bizi zirela. Euskara zela dibertitzeko, sufritzeko, sentitzeko eta komunikatzeko erabiltzen zuten hizkuntza.

Donostiak betikua izan dun euskera erroto eta zabaltzearen Bagera elkarteak sortutako Irutxulo astekariak HITZARI eman dio txanda.

'Bakarra munduban' den 'Donostiya' honek, gaurtik aurrera, bere-bereak dituen albiste txiki eta handiak, garrantzizko notizia eta berri xumeak euskaraz irakurri ahal izango ditu egunero.

Esaten denaren edertasun eta bitxitasunari kasu gehiegirik egin gabe, egunerokotasunaren grina, premia eta gogoak, esateko, askatzeko, ixurtzeko eta hustutzeko emango dion indarrez kaleratuko da hitza, euskarazko hitza, IRUTXULO KO HITZA.

Irutxulo-ri malkotxo batez adio agurra eskein nion era berean, ongi etorri beroa opa diot IRUTXULO KO HITZARI.

Agur t'erdi!

## BEHATXULO ▶

## ARGAZKIA: Foto Miki



## Garai bateko agintari guztiak IRUTXULO KO HITZAREKIN

Aurkikuntza bitxia egin berri dugu. Garai bateko alkatea, gotzaina, medikua, argazkilaria, mikelteia eta abar egunero euskaraz irakurtzen! Egunkari banatzaille zintzoa buru zutela

Antiguako kaleetan barrena ibili ziren joan den asteburuan. Laguntzaile bezala, ifñudeak eta artzainak izan zituzten, Antiguotarrak dantza taldeak antolatuta. Polita benetan.

## KALERIK KALE ▶

Kalean lo egingo zenuke gogoko taldearen kontzerturako sarrerak lortzeko?

## CRISTINA NUÑEZ

ANTIGUA



«Bai, Eros Ramazzotti edo beste talde italiarren bat etorriko babiliz, gaua ilaran pasatuko nuke sarrerak erosteko. Baina U2 taldearengatik ez nuke halakorik egingo».

## IGNACIO VILLAMERIEL

AMARA BERRI



«Kalean lo egitea oso gogorra da. Zaletasun handiegia behar da sarrera batzuegatik gaua kalean pasatzeko. Nik, behintzat, ez nuke kalean lo egingo, ez baitut hainbestearainoko zaletasunik».

## MACARENA DE LEON

ANTIGUA



«Ez nuke gaua kalean pasatuko kontzertu baterako sarrerak eskuratzeko. Gainera, ez zaizkit jendea gainezka egoten diren kontzertu handiak gustatzen».

## IÑAKI SAIZ

AMARA BERRI



«Neguan, behintzat, ez nuke gaua kalean pasatuko. Udaran, agian, giro polita sor liteke sarrerak erosteko ilaran. Hala ere, ez dut uste kalean lo egingo nukeenik».

## MARIA AZPIROZ

ORIO



«Ez nuke sarrera batzuegatik kalean lo egingo. Ez baitut hainbestearainoko zaletasunik. Gehinez ere, bizpahiru orduz egongo nintzateke zain kontzerturen bateko sarrerak erosteko».

## KOLDO ZUBIZARRETA

LASARTE-ORIA



«Kontzertuetara joatea gustoko dut; baina ez sarrerengatik kalean lo egiteko beste. Sarrera horiek norbaiti oparitzeko izango balira, gaua ilaran pasatzeko prest egongo nintzateke; baina niretzat balira ez».

## ESANA ▶

AITZPEA GOENAGA  
ANTZERKIGILEA

«Nire helburua aberastea balitz, ez nuke inola ere antzerkia egingo»

## DATUA ▶

# 42,8

**urte. Horixe, donostiarraren batez besteko adina.** Dena dela, generoaren arabera, adina aldatu egiten da. Emakume donostiarrak, batez beste, gizonak baino zaharragoak dira: emakumeek 44,8 urte dituzte eta gizonak, 40,5 urte.

## PASADIZOA ▶

**Ama Birjinak Donostiaren bukaera iragarri zueneko.** 1931n gertatu omen zen, Ezkion. Diotenez, Ama Birjina Antonia eta Andres Bereziartua haurtxoei agertu zitzaizen, eta honakoa esan omen zien: «Emakumeak gizonen antzera janzten hasten direnean, bukaera hurbil egongo da. Munduko biztanle gehienak hil egingo dira (...) Lurrikara handiak izango dira, eta suak uzta suntzituko du. Jendea gosez hilko da. Paris kiskali egingo da. Eta Marseilla eta Donostia itsasoak irentsiko ditu».

## IRUTXULOKO HITZA ▶

ANDER USABIAGA

**D**onostiako euskarazko egunkaria kalean da: IRUTXULOKO HITZA. San Sebastian bezperan haren burua aurkeztu ondoren, Donostiako egunkariak eguneroko ibilbideari ekin dio gaur eta beste mugarri bat jarri du euskal prentsaren historian. Urtarrilean egindako bisita labur-laburra izan zen, sartu-irtenaldi txoa. Hemendik aurrera, ordea, IRUTXULOKO HITZAK eguneroko hurbilduko dizkigu Donostian sortutako berriak.

Guztira, IRUTXULOKO HITZAREN lehen zenbakiaren 30.000 ale zabalduko dira gaur Donostian. Ahalik eta herritar gehienek argitalpen sortu berria bertatik bertara ezagutzea helburu. Beraz, otsailaren 17a Donostiako euskarazko prentsaren festa izango da.

Lehen zenbaki hau HITZAN izena eman duten herritarrek jasoko dute. Hau da, *Irutxulo* astekariok harpidedun ohiek, *Berria* egunkariok eta azken asteotan izena emandakoek. Baina, haiez gain, beste donostiarr askok ere lehen zenbakian bildutakoak irakurtzeko aukera izango dute. Banaketa berezia egingo baita ostegun honean Donostian.

## Milaka ale kalean

IRUTXULOKO HITZA banatzearen ardura Etixeraino enpresak izango du, eta 16 langile etxetxe ibiliko dira gaur goizean, harpidedunek egunkaria jaso dezaten. Beste zortzi lagunek kalean banatuko dute: eguerdian bitartean Bulebarrean, Groseko Katalunia plazan, Amara Berriko Antso Jakitunaren hiribidean, Larratxo pasealekuan, Ibaetako campusean... Bertatik dabiltzanek Donostiako egunkaria jaso ahal izango dute. Kalean, 10.000 ale inguru zabalduko dira. Beraz, lehen esan bezala, IRUTXULOKO HITZA kalera aterako da gaur. Esanahi osoan. Kalera; auzo guztietan, kalera.

Egunkaria Donostiako beste hamaika txokotan ere eskura-



Donostiarr askok eskura jasoko dute egunkari berria IRUTXULOKO HITZA.

# Donostiako egunkaria kalean

Guztira, 30.000 ale zabalduko dira gaur

garri izango da: kultur etxetxeetan, Koldo Mitxelena kulturunean, euskaltegietan...

Baita ikastetxeetan ere. Ikastetxeek IRUTXULOKO HITZARI egin-

dako harrera nabarmenezko modukoa da; lehen zenbaki hau ikasleen artean banatzea eskaini zaie gehienera eta erantzuna primerakoa izan izan da.

## IZENA EMATEKO

IRUTXULOKO HITZA  
jasotzeko, 943 304036  
telefono zenbakira  
hots egin behar da

Mota guztietako ikastetxeek —sare publikoak, kontzertatuak, ikastolak, erlijiosoak...— ekimenarekin bat egin dute eta milaka ale banatuko dituzte ikasleen artean. Begibistakoa denez, donostiarrak pozik hartu dute hiriko eguneroko albisteak euskaraz eskaintzea helburu duen kazetaritza proiektua.

## Izena eman beharra

Gaur ez ezik, datozen egunetan ere IRUTXULOKO HITZA era berezian zabalduko da. Ikastetxeetan ez da banatuko, baina bai, ordea, kultur etxetean, euskaltegietan eta, noski, kalean bertan. Donostiarr guzti-guztiek euskarazko argitalpenaren berri izan behar dute eta horregatik, IRUTXULOKO HITZAK ahalgintzaz berezia egingo du egunotan.

Aurrerago, hala ere, izena ematen dutenek besterik ez dute egunkaria jasoko. Beraz, gerora argitalpena irakurri ahal izateko, 943 304346 telefono zenbakira hots egin behar da. Horixe da biderik zuzena; eskatu nahi dutenek telefono horretara deitu behar dute eta handik gutxira egunerokoa jasotzen hasiko dira.

IRUTXULOKO HITZA kalera aterata eta euskal hitza barraiatuko du Donostiako bazter guztietan. Eguneroko. Udal informazioa, auzoetan sortutako albisteak, kirolak, kultura, aisialdia... Hamaika kontu ekarriko digu. Euskarazko egunkaria kalera jaitsi da eta bertan ibiliko da aurrerantzean; Donostia euskaldunagoa eta zabalagoa eginez. Donostiarraren laguntza beharko du, jakina. Baina orain arteko erantzuna ikusita, ez dago dudarik egunkariak bide luzea egingo duela gure artean.

**relojberri**  
cafe / pub  
www.relojberri.com  
Boulevard 20, (Alde Zaharra) 20003 Donostia Tel.: 943 42 97 09

**Oliyos**  
TABERNA-JATETXEA  
Josetxo Iruña  
Escolta real 4 • DONOSTIA Tel.: 943 21 49 89

**NARRIKA TABERNA**  
Ogitarteko eta pintxoetan aukera ezin hobea  
Narrika, 16 (Parte Zaharra)  
Tel.: 943 42 73 27  
DONOSTIA

**MARCOS**  
okindegia  
27. Industrialdea - ASTIGARRAGA  
Tel.: 943 45 09 66 - Faxa: 943 11 67 28

## KULTURA ▶

# Bertsoak oroimenean

Felixiano Udakiola altzatarrak buruz ikasitako hainbat bertso lariren aleak bildu ditu Historia Mintegiak bideo batean

RAUL PEREZ

**B**ertsolaritza Felixiano Udakiolaren pasioa da. Uztapide, Basarri, Mitxelena eta beste hainbat bertso lariren saloak zuzen-zuzenean ikusi edo irratiazen bidez entzun izan ditu. Eta oroimen onari esker, baita buruz ikasi ere.

Altzako Historia Mintegiak bideoa egin du Felixianok kantatutako bertsoekin. Txapelketetan ikusleentzako txaloak jasotako bertsoak gogorazi dituzte bertan. Felixiano hiru ordu laurdenetan aritu zen bertsoetan; Luis Mari Ralla bertsozale altzatarrak aurkezle lanak egin zituen; Antxon Alfaro eta bere seme Uruti arduratu ziren grabazioaz eta Xabier Bermudez, soinuaz. Bideoa Casares kultur etxean bertan salgai dago, hamar eurotan, eta altzatar askok erosi dute orain arte.

## Zuzeneko emanaldia

Bideoak izandako harrera onaren ondoren, Luis Mari Ralla eta Felixiano Udakiola zuzeneko emanaldia prestatzen ari dira orain. Felixianok esan digunez, bertsoetan egiteko prest dago: «Eztarriak hutsik egiten ez badit, altzatarren aurrean ausartuko naiz». Emanaldia martxoaren 11n izango da, Casares kultur etxean, Korrika Kulturaren harira. Hala ere, pixka bat urduri dagoela aitortu digu: «Grabazioa oso ondo joan zen, baina ez dakit zer moduz moldatuko naizen jendarean».

Txikitatik gustatu izan zaio bertso laritza Felixianori. Azalutakoaren arabera, ama Ixabelengandik jaso zuen kantatzeko eta bertsoetan aritzeko zaletasuna. «Ama aldarte onekoa zen eta kantatzea atsegin zuen. Berak esaten zuen



Felixiano Udakiola Lardi Txiki etxean jaio eta bertan bizi da. IRUTXULO

Herrerara etorritako fraideek ekarri zutela kantatzeko zaletasuna».

Felixianok, gaztetan, Altzako Martillun edo Lau Haizeta sagardotegietan bertsoak botatzen zituen koadrilakideekin noiz edo noiz. Horrez gainera, txapelketa bat edo beste zuzenean ikusi zuen. Esaterako, bertatik bertara ikusi zuen Xalbador baxenafarrak irabazitako txapela.

Eta gogoan du, beste txapelketa batean, Azpillaga pasaitarrak kantatutako agurra, txapelketa hartan parte hartu zuten bederatzi bertso lariren izenean: «Izugarrizkoa izan zenu», gogoratu du.

## Irratiaren bitartez

Dena dela, bertsozale altzatarrak buruz ikasitako bertso gehienak irratian eta liburu bitartez jaso ditu. Bertsoak buruz ikastea ez dela batere zaila nabarmendu digu Udakiolak: «Beti kantari ibili izan naiz; bertsoak behin ikusi edo kantatu dituzula, oso erraza da gogoratzea».

Zailagoa omen da, ordea, ikasitako bertso guztien artean gogoangarrienak aukeratzea. Hala ere, Oiarzungo Mitxelena txapelketa batean botatutako oso gogoan ditu: «Jarritako gaia ez zen samurra. Trenak harrapatutako semea gogoan

hartuta bota zituen bertsoak.... Gogoratzen naiz etxean konpontze lanak egiten ari girela eta irratian bidez entzun nirela Mitxelena bertso haiek».

Bertsolarien artean, Lasarte, Uztapide eta Basarri goraitu ditu. «Lasarte aparta zen eta Uztapide eta Basarri ere, bikainak. Basarrik bertso laritza suspertu zuen. Uztapidezaleen eta Basarriezaleen arteko eztabaidak ohikoak izaten ziren garai hartan». Egaña eta Lizasotarrak, aita eta semea, ere atsegin ditu, eta baita Igor Elortza ere.

Felixianoren ustez, garai bateko eta gaur egungo bertsolarien artean, ezberdintasun nagusia honakoa da: «Sasoi batean oholatza gainean aritzen zirenek berezko zuten bertso larri sena. Orain ez da hori gertatzen; asko bertso eskoletan hasten dira».

## Txirritaren pasadizoa

Felixiano Lardi Txiki etxean jaio zen, duela 73 urte, eta bertan bizi da. Lardi Txiki, hain justu, Txirrita Bertsolariaren kalean dago. Felixianok ez zuen Txirrita ezagutu, baina badu, noski, bertso larri ezagunaren berri, amak kontatuta: «Txirrita maiz joaten zen Herriako Peruene baserrira eta ama askotan bertan izaten zen.

## Igeltsero kantuzalea

Felixianok kantuzaletasunarekin lotutako pasadizo berrigarria kontatu digu: «Behin batean, ONCERen kuipoa erosi nuen Erdialdean. Hurrengo egunean, autobusez lanera nindoala, ondokari egunkaria eskatu eta sarritxo egokitu zitzaidala ohartu nintzen. Gogoratzen naiz 22.000 pezeta irabazi nirela! Igeltsero lan egin dut bizitza osoan eta egun hartan kantu-kantari ibili nintzen, Getaria kalean igeltsua jartzen nuen bitartean. Hala-koto batean, bizilagun batek izugarri ondo abesten nuela eta ea igeltsero zer demontre egiten nuen esan zidan». Lagunek ere bazekiten Felixianok bikain kantatzen zuela. Hortaz, lagunarteko merienda edo afaritan bere esku uzten zituzten kantak eta bertsoak. ◀

## AMARI JARRAIKI

Felixianok amarengandik jaso zuen kantatzeko eta bertsoetan aritzeko zaletasuna

Amak zioenez, jende asko sartzan zen sagardotegira Txirritaren bertsoak entzutea. Sagardotegikoentzat negozio ederra zen, hala ere; jende askok ordaindu gabe alde egiten baitzuen».



## Bizarrainek eta Kontseiluak elkarlanean jarraituko dute

**EUSKARA** ▶ Xabier Mendiguren Euskararen Gizarte Eragileen Kontseiluko idazkari nagusiak eta Altzako Bizarrain euskara elkarteak lehendakari Arantza Hernandezek elkarlanean jarraitzeko hitzarmena sinatu zuten astelehenean, hilak 14. Bizarrainek Kontseiluaren laguntza jasotzen du 2001etik, Altzan 'Bai Euskarari' akordioa aurrera eramateko. Altzako elkarteak Udalarekin duen hitzarmena ere berritu nahi du. Horretarako, alderdi politikoei bilerak egiten hasi da. RAUL PEREZ

## iragarki laburrak ▶

### LAN-POSTUAK

**Telefonistak.** Erakunde publikoetarako lanpostuak betetzeko. Doaneko informazioa: 943 43 41 27.

**Ostalaritza.** Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Lanpostuak betetzeko: eskolak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informazioa: 943 43 41 27.

**Eraikuntza.** Igeltseroak, peoiak. Gipuzkoako udalaren lanpostu

finkoak. Informazioa: 943 43 41 27.

**Gidariak.** Lanpostuak libre. Udaletxean, Eusko Jaurlaritzan, Diputazioan. Doaneko informazioa: 943 43 41 27.

**Haur hezkuntza.** 1.200 lanpostu. Sarbide libre. Doaneko informazioa: 943 43 41 27.

**Administratzaile laguntzaileak.** Lanpostuetara laster sartzeko.

Udalak: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorales,

Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoeta. Doaneko informazioa: 943 43 41 27.

**Mantenimentua.** Elektrizistak, iturginak, soldatzaileak, arotzak... Erakunde publikoetan libre dauden lanpostuak. Informaziorako telefonoa: 943 43 41 27.

**Peoiak.** Elektrizistak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Erakunde publikoetan libre dauden lanpostuak betetzeko. 943 43 41 27.

AMARA BERRI ▶



Antena argazkiko etxeko teilatuan izan da azken lau urteetan. IRUTXULO

# Telefonia antena kendu berri dute

Jose Maria Salaberria kaleko 45.ean  
jarri zuten, 2000ko uztailan

RAUL PEREZ

2000. urte hasieran, Euskaltel enpresak Jose Maria Salaberria kaleko 45. atarian eskuko telefonoentzako antena jartzeko asmoa azaldu zien bizilagunei. Bilera egin ondoren, bizilagun gehienek antena jartzearen aldeko botoa eman zuten; 10 lagun alde agertu ziren, bik zuriz bozkatu zuten eta beste bost antena jartzearen kontra azaldu ziren. Beraz, Euskaltel-ek zazpi metro eta erdiko antena jarri zuen, eta antena uztaierako lanean ari zen.

## Kezka

Antena jarri eta gutxira, bi bizilagunek kezka azaldu zuten antenarengatik; osasunarentzat kaltegarria zen ala ez jakin nahi zuten. Bizilagunok Alberto Arrate abokatu eibartarra-rengana jo zuten —Arrate aditua da antenei buruzko auzietan—. Abokatuak, gaia aztertu ondoren, epaitegira jo zuen. Antenaren auzia lau urte luzez epaitegi batetik bestera ibili da eta azkenean, antena kentzeko agindua eman dute.

Arratek antena kentzeko honako arrazoi nagusia aurkeztu zuen: antenaren ondorioz, eraikinaren itxura aldatu zela eta horrelakoetan, bizilagunek aho batez onartu behar dituztela egin beharreko lanak; kasu honetan, antena jartzea. Aipatu bezala, Jose Maria Salaberriako etxean, bizilagun batzuek antena jartzearen aurka botoa eman zuten.

Abokatu eibartarra oso kritikoa da epaileak gai honetan hartzen ari diren jarrerarekin: «Epaileak, antena auzietan, ez ohi dira erradioazio kontuetan sartzen, ez baitago behar bezala frogatuta antenak osasunarentzat kaltegarriak diren ala ez. Guk, esaterako, aditu batek Amara Berriko etxean egindako azterketa aurkeztu genuen frogara gisa; azterketaren arabera, antena jarri aurretik baino erradiazio handiagoa zegoen etxean. Ez zuten azterketa aintzat hartu, ordea. Dena dela, bizilagun bakar bat, antena jartzeko garaian, aurka badago, epaileek antena kentzeko agindu ohi dute. Hori gertatu da, hain zuzen, Jose Maria Salaberriari».

GROS ▶

## Antxetako mendizaleak Muruamendira

Sagueseko Antxeta elkarteko mendi taldeak irteera antolatu du iganderako, hilak 20. Auzoko mendizaleak Ordiziara trenez joango dira, bertatik Murumendiko tontorrera igotzeko. Antxetako lagunak Groseko tren geltokian elkartuko dira 08:15ean, eta 15:00ak aldera bueltatuko dira. Mendi irteeran parte hartu nahi dutenek ostegunean, hilak 17, Antxetaren egoitzara joan edo 943 281791 telefono zenbakira deitu behar dute, 20:30etik 21:30era bitartean.



Antxetako mendizaleak, iaz egindako mendi irteera batean. IRUTXULO

ANTIGUA ▶

## Euskal dantza ikastaroa merkatuan

Arin-arina, fandangoa edo beste edozein euskal dantza ikasteko irrikitan bazaude, frontoi ondoko merkatu zaharrean duzu aukera. Antiguotarrak eta Dantzaritzu taldeak, euskal dantzak sustatzeko asmoz, ikastaroa egiten ari dira, ostegunero. Ikastaroan parte hartu nahi duenak ostegunetan, 20:00etan, merkatura joan besterik ez du.

AIETE ▶

## Garizuma topaketak auzoko parrokian

Martxoaren 16a bitartean, Garizuma Topaketak egingo dira Aieteko Gurutzeaga elizan. Topaketok asteazkenean izango dira, 19:30ean. Alde batetik, hitzaldi laburra izango da eta ondoren, eliz musika emanaldia. Hilaren 23an, Blanca Garciak *Itxaropenaren Telefonoaz* hitz egingo du. Garcia zerbitzu horren arduradunetako bat da.

Matrikula  
Iraketa  
Otsailaren  
14tik 25ra

### DONOSTIAKO IKASTETXE eta IKASTOLA PUBLIKOAK

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

| Ikastetxea                     | Auzoa                       | Telefonoa  |
|--------------------------------|-----------------------------|------------|
| AITOR IKASTOLA                 | (Etxea)                     | 943 282132 |
| AITZA S.J.C. HERRI IKASTETXEA  | (Aitza)                     | 943 352024 |
| AMARA BERRI HERRI IKASTETXEA   | (Amara-erdigunea/centro)    | 943 458550 |
| AMASSORRAIN IKASTOLA           | (Aharra)                    | 943 370872 |
| ARANTZAZUJO AMA IKASTOLA       | (Martutene-Astigarra)       | 943 470235 |
| HARRI BERRI - OLETA IKASTETXEA | (Aitza)                     | 943 353592 |
| HERRERA IKASTETXEA             | (Orenera)                   | 943 391577 |
| HOSPITALEKO GELAK              | (Arantzazuko Ama Hospitala) | 943 007000 |
| IBAI IKASTOLA                  | (Ibaita)                    | 943 214206 |
| IGELDO HERRI IKASTETXEA        | (Igeldo)                    | 943 217225 |
| IKASBIDE IKASTOLA              | (Amara)                     | 943 467294 |
| INTXAURRONGO IKASTOLA          | (Intxaurren)                | 943 285110 |
| INTXAURRONGO HEGOA IKASTETXEA  | (Intxaurren)                | 943 297023 |
| JAKINTZA IKASTOLA              | (Antigua)                   | 943 217324 |
| KATALIN ERAUSO IKASTETXEA      | (Amara)                     | 943 464339 |
| MENDIOLA HERRI IKASTETXEA      | (Bideola)                   | 943 395092 |
| ORIXE IKASTOLA                 | (Alde Zaharra)              | 943 429522 |
| ZUBIETA HERRI IKASTETXEA       | (Zubieria)                  | 943 372931 |
| ZUHAIZTI ESKOLA PUBLIKOA       | (Gros-Alegorrieta)          | 943 320413 |
| INGURUGIRO HEZKETA CEIDA       | (Intxaurren)                | 943 321859 |
| BERRITZEGUNEA                  |                             | 943 320087 |

Ingurugiro Heziketa CEIDA  
Laguntza zerbitzua

BERRITZEGUNEA  
Laguntza Zerbitzua

Kalitatezko Eskolak  
zure Auzoan

**Hezikuntza**  
Hezikuntza saila  
Departamentu de Educación

**baikara**  
Baitakara  
Baitakara

**MAGNETISTA NATUROPATA**  
Tel.: 943 623055 · San Marzial 7 · IRUN

**ERREKUPERAZIOAK**

- Diabetes
- Larrazaleko alergia
- Asma
- Buruko mina
- Prostatia
- Birusak
- Oinetako izerdia

**IKUSMENA ERREKUPERATZEA**

- Begi nagiak
- Miopia
- Hipermetropia
- Estrabismoa
- Begi-kausok

**ORDUTEGIA:**  
Goizez: 9-13.  
Arratsdez: 14-19.  
Aurretik ordutia hartu

**GIHARRETAKEO ARAZOAK**

- Erreabilitazioa
- Artrosia
- Erreuma-artritisa
- Lumbalgia
- Lepoko mina

Zentrua ez da enbata

JOSE MARI AMORRORTU ► REALEKO ENTRENATZAILEA

# «Hain giro nahasia aurkituko nuenik ez nuen inoiz pentsatu»

Azken bi emaitzek taldea sendotzeko balio behar dutela uste du Amorrortuk

EKAITZ AGIRRE

Denboraldi gogorra da aurtengo Realarentzat. Ingurua aztoratuta, zale asko zuzendaritzarekin haserre, taldea gora-behera handiekin. Halakorik ez zuen espero Jose Mari Amorrortuk Donostiara iritsi zenean. Zurrumbiloaren erdian lasaitasun eta sosegu izpia da bizkaitarra.

**Urtarrila negargarria izan zen, otsailarekin batera emaitzak behintzat aldatu dira.**

Valentziarekin berdinduta eta Santanderren irabazita giro baikorragoa dugu orain taldean, eta hori nabari da lanean.

**Inflexio puntua izan daiteke taldearen ibilbidean?**

Hala izatea nahi dugu guztiok. Valentziaren aurka agerikoa izan zen taldeak egoera zailari aurre egiteko gogo baduela, erreakzionatzeko gaitasuna baduela. Santanderren irabazita, hori berretsi dugu. Urtarrila oso gogorra izan da, ez nuke halakorik errepikatu nahi.

**Atsedendian 0-3 irabasten, ez al zenuten gehiegi sufritu partida irabazteko?**

Hala da, bai. Racingen golarekin oso atzean sartu ginen, emaitzari eusteko, eta halakotan sufritu egiten da beti. Sendotasun falta dugu oraindik.

**Zer behar du taldeak sendotasuna eskuratzeko?**

Emaitzek asko baldintzatzen dute; talde baten ibilbidean eta

kemenean garrantzia handia dute. Horiek lortuta, zuzenduko dugu ibilbidea.

**Denboraldi hasieratik bolada onak eta txarrak tartekatatu ditu Realak. Oreak, erregulartasuna, falta al da?**

Dugun taldearen ondorioa da hori. Jokalari gazteak ditugu, horien aldeko apustua egin dugu eta trantsizio urtea da aurtengoa. Horrek guztiak dakar irregulartasuna, errendimenduan zein emaitzetan. Jokalari asko estreinakoz ari dira lehen mailan, baina oso ongi ari dira. Taldeak ez du daukan guztia transmititu, baina zailtasunei aurre egiteko gai garena erakutsi du. Erregulartasun hori dugu erronka.

**Larunbatean Sevilla aurkari, arerio gogorra.**

Erronka handia da larunbatekoa, azken bi partidetako boladari eustea oso garrantzitsua delako. Irabazita lasaia egon go gara.

**Lasaitasuna aipatu duzu. Taldearen inguruko giroak ez di-rudi erraza lasaitasunerako eta batasunerako.**

Fronte gehiegi daude taldearen inguruan, eta horrek ez digu laguntzen. Kluba oso egoera zailan dago, baina guk dugu giltza kirol arloan. Dena dela, ez da erraza inguruan ikusten ditugunetatik aparte aritzea.

**Uneren batean ikusi al duzu zure postua kolokan?**

Ez dut inoiz nire buruan pen-



EKAITZ AGIRRE

tsatu. Talde lanean ari naiz buru-belarri.

**Denboraldi hau zuretzat orain arteko zailena al da?**

Dudan kargua aintzat hartuta, zailtzarik gabe. Realaren entrenatzea oso garrantzitsua da niretzat, erantzukizun handikoa, baina hasieratik ilusio handia jarri dut proiektuan eta horri eusten diot. Dena dela, Donostiara iritsi nintzenean ez nuen uste hain giro nahasia aurkituko nuenik.

**Nihatzen izena dago guztion ahotan. Zer gertatuko da?**

Nihat saltzeak zurrumurrekin oso kezkatuta nago. Denboraldia amaitzeko asko falta da eta ez nuen gaia buruan. Ez da ona ekainean joan daitekeen jokalaria bat hizpide izatea, eta are okerragoa hain jokalaria garrantzitsua joan daitekeela onartzea.

**Mikel Arteta izar gisa iritsi zen. Dizdirarik egin ez eta zuri errua egotzita utzi du taldea.**

Ez du espero genuen emaitzarik eman, eta inork ezin du gus-tura egon. Ez diet bere hitzei garrantziarik eman nahi. Denok dugu erantzukizuna, baina erabaki guztiak taldearen onura bilatu asmoz hartu ditut.

**Beharrezko zen Mladenovic?**

Zelai erdian eskas geunden eta jokalariren bat behar genuen. Gogotsu etorri da, eta esperientzia eta oreka ekarriko ditu.

**Zer moduz egokitu zara Donostiara?**

Oso ongi, nahiz eta hiriaz gehiago gozatzea gustatuko litzaidakeen. Arratsaldero Haizearen Orrazira joaten ahale-gintzen naiz.

**Euskaraz nahikoa txukun moldatzen zara.**

Orain hiru urte hasi nintzen ikasten, eta Gipuzkoan nagoe-netik asko hobetu dut. Taldean praktikatu dezaket, eta oso pozik nago, ia 50 urterekin bada ere, euskara ikasi dudalako.

LASTERKETA ►

## Astlehenean zabalduko da Lilatoian izena emateko epea

Martxoaren 6an jokatu da lasterketa herrikoia

AMAIA PORTUGAL

Astlehenean irekiko da Lilatoian aritzeko izen emateko epea. Usandizaga kaleko Iza-di Kirol dendan eta Elkano kaleko Laister Kirol dendan eman daiteke izena. Antolatzaleek fax zenbakia —943 462866— eta helbide elektronikoa bat —[lilaton@euskal-lerria.org](mailto:lilaton@euskal-lerria.org)— jarri dituzte, nahi duen orok modu horretan izen eman dezan. XVI. edizioa du emakumezkoen lasterketa ezagunak, eta parte hartzaileek 5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

PILOTA ►

## ‘Berria’ txapelketako partidak, igandean

A. PORTUGAL

Berria Txapelketaren bigarren edizioaren baitan, final-hamaseirenetako kanporaketak jokatu dira igandean Altxako pilotalekuan. Goizeko 10:45etatik aurrera, Leitzako Aurrera eta Huarte taldeek lehiatuko dute elkarren aurka; kadete, jubenil eta afizionatuen mailan. Iparralde Zaramagaren kontra eta Irurtzun Berriotxoaren aurka arituko dira oraindik jokatzeko dauden beste bi final hamaseirenetan.

Internet: Zer eskatu behar diot Web garapenerako zerbitzuen hornitzaileari?

Zure Web ondoan sortu nahi? Hornitzaileekin harremanetan jartzeari baino beharrezko erakutsiko dizugu: nola aukeratu egokiena, bilatzaileen garrantzia...

Informazioa eta izena emateko:  
902 252 595  
[www.mintegadigital.com](http://www.mintegadigital.com)  
[carlos@mintegadigital.com](mailto:carlos@mintegadigital.com)

**HITZA, egunero doan jaso nahi baduzu deitu**

**943 30 43 46**

XAKEA ▶

# Futbola bezain unibertsala

Kanpotar asko Gros Xake Taldeko kideak dira; profesionalak dira batzuk, afizionatuak gehienak.



Elvis Hernandez dominikarra eta Sin Hung Tung txinatarra, elkarren aurka xakean jokatzen. IRUTHULO KO HITZA

## AMIA PORTUGAL

Nazioarteko merkatua tentagarria da edozein kirol talderentzat. Futbolearen, jokalaririk brasildar edo serbiarren fitxaketak eguneroko kontua dira. Gros Xake Taldearen aurrekontuak ez du inolako zerikusirik Realak duenarekin, baina haiek ere atzerritarrei erreparatu die. Horren adibide azken fitxaketa da: Boris Gelfland israeldarra. Bieloerrusian jaioa, Gelfland munduko jokalaririk onenetakoa da.

Lehendik ere makina bat kanpotar aritzen ziren xakean Manteo kiroldegian —Gros Xake Taldeak bertan du egoitza—. Gehienak haien kabuz iritsi dira bertara, ez ditu inork fitxatu; xakea gustuko dutelako aritzen dira, besterik gabe. Ohorezko Mailan, laupabost kanpotar daude. Haietako batzuk ez dira Donostian bizi, baina oso garrantzitsuak dira Gros Xake Taldearentzat. Eta ez jokalaririk onak direlako bakarrik: «Gure ikasleentzat inportanteak dira, klaseak ematen dizkietelako», dio Eli Argandoña Gros Xake Taldeko lehendakariak.

Ohorezko Mailan dabilen xake jokalarietako bat Elvis Hernandez dominikarra da. Beste zenbait ez bezala, Elvis Donostian bizi da. Joan den azaroan iritsi zen gure artera, eta oraindik bertako klimara

egokitzen ari dela dio: «Dominikar Errepublikakoa baino askoz ere hotzagoa da Donostiakoa». Hogeita lau urte besterik ez ditu Elvisek, baina 14 zituenetik jokatzen du xakean. Ez du eskarmentua falta, beraz. Joan den urrian, esaterako, Xake Olinpiar Jokoetan ibili zen, Dominikar Errepublikako taldeko partaide. Ez zuten oso emaitza ona lortu, ordea: «Gure herrian ez dago xakean jarduteko ohitura handirik; beisbollean jokatzen dute gehienbat».

## 'Vaya Semanita'-ko xakelaria

Beharbada, ohitura falta horregatik ez dute, Elvisek jaioterrian, taldekako txapelketa askorik egiten, hemen ez bezala. Gainerakoan, xakean jokatzen erantzen, ez dago ezberdintasun handirik: «Antzekoa da, baina aurkari batzuek alde aurretik inoiz ikusi ez ditudan joku sistematik darabiltzate hemen».

Elvis heldu berria ez bezala, Sing Hung Tung txinatarra aspalditik bizi da Donostian. Sing Hung Tung Parte Zaharreko

Pekin jaietxearen jabe da, eta lan honi esker hasi omen zen xakean: bezero bat jokatzen ikusi zuen, eta interesgarri iruditu zitzaion. Berarentzat xakea «oso ona» da, denbora luzea izaten baitu sobera.

Jatorriz Txinakoa izanagatik, Donostiara erabat egokitu da Sin Hung Tung. Manteo kiroldegian, denek 'Benito' esaten diote, eta ETB 2ko 'Vaya Semanita' telesaioan parte hartu izan du, semearekin batera. Gaztelania ez duela erabat menderatzen dio, euskaraz oso gutxi daki, baina horrek xakean ez duela axola uste du: «Fitxa mugitu, eta badakizu zer esan nahi duen». Nabari da kirol honi garrantzi handia ematen diola, nahiz eta bera ez den Ohorezko Mailan aritzen. Izan ere, txapelketarik prestatzen ari den galdetuta, «nik egun osoa pasatzen dut nire burua prestatzen», erantzun digu.

## Kafetegitik kiroldegira

Ruben Sebastiani peruarra ere Gros Xake Taldeko kide da, duela lau urtetik. Ematearekin batera, kafetegia du Trueba kalean.

Ruben duela 15 urtetik bizi da Donostian. Lehen ez omen zuen jokatu ere egiten, baina orain grinak harrapatuta dabil. Ez du meritu makala: arratsaldean lan egiten duenez, iluntzean joaten da Manteora eta 22:30ak arte jarduten du.

## FITXAKETA

Gros Xake Taldeak  
Boris Gelfland  
israeldarra fitxatu du,  
munduko xakelari  
onenetakoa

Tailer aldaketa

mendauto  
MENDARO AUTOAK

Hilaren 21 etik  
aurrera zure autoa  
Lasarteko tailer berrian  
hartuko dizugu

Zatoz gure  
instalazio berriak  
ezagutzera

**HYUNDAI**

Zirkuitu kalea 12,  
Tel. 943 371 548

**LASARTE ORIA**  
Txartel Hoteletik 50 metrotara

Harrerarako tel.: 902 345 335

## HIRIGINTZA ▶ EUSKOTRENEKO LANAK



Lugaritzeko tren geltokia. EKAITZ AGIRRE

# Martxoaren 10ean Lugaritzeko tren geltokia irekiko dute

Easo plazaren eta Añorgaren arteko bide berria ere egun horretan bertan zabalduko dute, gauerdian

## ORREAGA ARANBURU

Euskotrenen Lugaritzeko geltokia eta Easo plaza eta Añorga arteko bide berria martxoaren 10ean inauguratuko dituzte.

Lugaritzeko geralekua Geriatriko aurrean dago, Amara eta Antigua arteko errepide ondoan. Martxotik aurrera, beraz, Errotaburuko, Igarako eta Antiguako biztanleek tren geltokia izango dute.

Geltokirako sarreran, bi eskailera eta bi igogailu jarriko dituzte. Horrez gain, eskailera mekanikoak jarri ahal izateko tokia utzi dute.

Lugaritzeko geltokia ez da Euskotrenen bideetan azken aldiaren egindako lan bakarra.

Easo Plaza eta Lasarte-Oria artean ere trenbide berria egin baitute.

Bide berri honi esker, bidaia laburragoa izango da eta trenak maizago ibiliko dira. Bide berri hau lur azpitik doa zati batean, Easo plazako geltokitik Lugaritzeko geltokira. Trenak martxoaren 10eko gauerdian hasiko dira bide hori erabiltzen.

Bide zaharrari dagokionez, Udala oinezkoentzako eta txirindularientzako pasabidea egitea aztertzen ari da.

## Atzerapena

1999. urtean hasi ziren Easo eta Añorga arteko bide berria egiten. Lanak 2001ean bukatzeok ziren, baina hainbat arazo tarteko, lanak ia lau urte atzeratu dira.

Ondorioz, Morlansen etxebizitzak egiteko proiektua ere atzeratu egin da. Ezinbestekoa baitzen, egitasmoari ekiteko,

Euskotren-en bide berria bukatzea.

## 2010era begira

2006-2007tik aurrera, Lasarte-Oria eta Hendaia arteko bidean berrikuntza gehiago egiteko asmoa duela iragarri du Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak.

Loiola eta Herrera artean lur azpiko beste bide bat egingo dute, eta oraingo bidea merkantzia trenek erabiltzeko utziko dute. Hala, bidaiarientzako trenak maizago ibili ahal izango dira.

Bide honek Intxaurrenondon lur azpiko geltokia egiteko aukera emango du. Geltoki honek bana sarrera izango du, auzoaren iparraldean eta hegoaldean. Bestalde, Herrerako geltokia berriro egingo dute. Lanak 2010ean bukatu nahi dituzte.

## ERAKUSKETA ▶

## Batzar Nagusien egoitza proiektua ikusgai Arkitektura Goi Eskolan

Arkitektura Goi Eskola Teknikoak Batzar Nagusien egoitza berriari buruzko erakusketa antolatu du; egoitzaren proiektua Arkitektura Eskolan bertan izango da, Luis Peña Gantxegi eraikinean hain zuzen. Egoitza berria Miramongo parkean eraikiko dute, EITBren egoitzaren eta Poliklinikaren artean. Eraikuntza lanak aurtan hasiko dira eta legealdi honetan bukatzea aurreikusi dute. Egitasmoak 12-13 milioi euroko aurrekontua du.

## HIRIGINTZA ▶

## Eak Sagueseko lanak atzeratu izana salatu du

Aita Klaret plazako bizilagunentzat Saguesen egiten ari diren aparkalekuko lanak atzeratu izana salatu du Eusko Alkartasunak. Aparkalekuak duela zazpi hilabete prest behar zuela esan du Jokin Ezkerro EAKo zinegotziak eta lanak are gehiago atzera daitezkeelako kezka azaldu du: «Oraindik ez dituzte aparkaleku gainera plazako lanak egin; beraz, bukatzerako, urtebeteko atzerapena izan daiteke. Aparkatzeko arazoak ikusita, kezagarria da». Aurrerantzean, Udalak hitzartutako lan guztietan epeak betetzen diren kontrolatuko duela dio EAK.

## INGURUMENA ▶

## Gai arriskutsuak maizago biltzeko eskatu du Eguzkik

Eguzki talde ekologistak hondakin arriskutsuak biltzeko zebitzua hobetzeko eskatu dio San Markos Mankomunitateari. Gai arriskutsuak —olioa, pintura, fluoreszenteak...— biltzeko, San Markos Mankomunitateak kamioi bat du, auzoz-auzo ibili ohi dena. Auzo gehienetan, hilean bitan jasotzen dituzte gai arriskutsuak. Eguzkik urtarrean egindako inkestaren arabera, eskualdeko herritarren %82ak ez daki kamioia noiz joaten den bere auzo edo herria. Horregatik, kamioi gehiago erabiltzeko eta informazio kanpaina egiteko eskatu du Eguzkik.

## ETXEBIZITZA ▶



Jose Ramon Beloki, Roman Sudupe eta Victor Bravo. ©. ARANBURU

## Loiolako koartelaren auzia Madrilera

EAJk zenbait ekimen bultzatuko ditu Kongresuan eta Senatuan, Espainiako Gobernuak Loiolako koarteleko eta Martuteneko espetxeko lurrak Donostiako Udalari eman diezazkion. Roman Sudupe EAJko udal bozeramailearen hitzetan, lur horiek etxebizitzak egiteko toki aproposenak dira. EAJk Espainiako Etxebizitza ministroari bitartekari lanak egitea eskatuko dio. Horrez gain, Jose Ramon Beloki diputatuak eztabaida bultzatuko du Kongresuan eta Victor Bravok galderak egingo ditu Senatuan.

**Decoraciones GROS**

- Parketak eta tarimak
- Zoru mota guztiak
- Hormen estaldurak

PRODUCTU NATURALAK  
(PINTURAK, ARGIZARIK, OILUAK, ETAB.)

San Frantzisko, 19 behea - 20002 DONOSTIA  
Tel.-Faxa: 943 27 85 05

**SUPER SONIDO**

www.supersonido.com

**MIELE ESKAINTZAK**

- \* Garbigailuak hilean 14,27 eurotik
- \* Ontzi garbigailuak hilean 11,07 eurotik
- \* Hozkailuak hilean 5,95 eurotik

Urbietan, 40 Tel.: 943 456 902 Faxa: 943 470 252 - 20006 DONOSTIA

**HITZA**

Donostiako plaza  
943 441846

Toki aproposa  
iragartzeko  
donostia@iragarri.net

PABLO MALO ▶ ZINEMAGILEA

# «Sariak irabazteak ez du inor zinemagile on egiten»

Goya saria irabazi ostean, bizitako esperientziarekin pozik eta egitasmo berriekin ilusionatua dago Malo donostiarra



BORJA RUIZ

BORJA RUIZ

Duela urte batzuk *El angel de marmol* eta *Jardines deshabitados* film laburrekin sari ugari irabazi zituen Pablo Malo donostiarra. *Frio sol de invierno* lehen film luzeak egin du ospetsu, ordea. Arrakastak itsutu ez duenaren susmoa hartu diogu Parte Zaharreko gazteari. Zuzendari berri onenaren Goya saria eskutan zuela, orain arteko ibilbide oparoaz eta etorkizuneko egitasmoen aritu zaigu. **Duela gutxi zuzendari berri onenaren Goya saria jaso duzu. Halakorik espero al ze-nuen?**

Inoiz ez naiz joan gisa horretako jaialdi edo ekitaldietara etxera sariren bat ekartzeko asmoz. Halakoetan, nirea baino film erakargarriagoak daudela pentsatzen dut beti. Madrilerako joaten ginen bakoitzean Espainiako Zinema Akademiako ki-deek filma gustuko zutela esaten ziguten. Baina, egia esan, ez nuen irabazterik espero. Zirraragarria izan da. Filmean parte

hartu dugun guztion lanaren fruitua delako, bereziki.

**Bitikeriarik gertatu al zitzai-zun Goya sarien banaketan?**

Pasadizo xelebrea izan nuen, benetan. Saritua izan ondoren, Espainiako presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterorekin hizketan ari nintzela, aurrean genuen emakumeak buelta eman zuen eta Goya gainetik kentzen ez banion bizkarra izotzuko niola esan zidan. Zein izango ote, eta... Carmen Calvo kultura ministroa!

**Jende askok zoriondu zaitu. Tentatu zaituenik ere izango zen halen artean?**

Jende askok eman dizkit zorionak. Eskertzen ditut guztiak, baina nolabaiteko distantzia hartu nahi nuke. Sariak jasotzeak ez du inor zinemagile on bihurtzen. Zutaz inor ez oroitzeak ere ez du esan nahi kas-karra zarenik. Jendea hurbildu zait egitasmo berrien inguruko informazio eske. Baina gauza bat argi daukat: nigan konfiantza dutenekin leiala naiz. Luis Goiak nahi nuen filma egiten

## GUSTUKO ZINEMA

«Zinema europarra atsegin dut; pertsonen buruzko istorioak ardatz dituzten filmak maite ditudalak»

utzi zidan, eta harreman aparta dut berarekin. *Frio sol de invierno* filmarekiko adierazi duen fedea izan ez balu, ez genukeen sari hau irabaziko. **Ekoizle ez ezik, adiskide ere baduzu Luis Goiak.**

*Jardines deshabitados* film laburrak oihartzun zabala lortu zuen. Sasoi hartan, Madril zein Katalunia aldeko ekoiztetxe askoren eskaintzak jaso nituen, Luis Goiarenarekin batera. Berarekin bilera izan nuenean zera esan zidan: «Nik markoa eskainiko dizut, baina koadroa zuk zeuk marraztu beharko duzu». Bere hitza bete du. Arlo artistikoari zegozkion erabakiak askatasun osoz hartu baititut. Oso pozik nago berarekin.

**Zinemazale amorratua zarela jakina da, baina zer film mota atsegin duzu?**

Zinema maite dut, aspaldian areto batetara joan ez naizen arren. Ekarpene bat egiten dudan zinema atsegin dut, egoera berrien aurrean jartzen nauena, ikuspuntu ezberdinak eskaintzen dizkidana, zinema soziala, pentsatzen jartzen nauena... dibertimenduan edo ikuskizunean galerarik eragin gabe. Zinema europarra estatubatuarra baino gogokoagoa dut. Bertan, pertsonen buruzko istorioak gailentzen direlako. Zinema estatubatuarrean, al-diz, gauzei buruzkoak dira nagusi.

**Zuk duzun zinema egiteko era ere halakoxea da. Salaketa soziala al daildo nagusia?**

Ez da nire helburu nagusia. Istoria interesgarriak eta entretenigarriak kontatzea da nire xedea. *Frio sol de invierno* filmaren kasuan bizitza marjinala duten hiru pertsonen egoera jakin batetik abiatzen naiz, haien egoera ekonomikoa edozein izanda ere, bizimodu marjinala baitaramate. Haien bitartez, lanik egiten ez duen eta ekoizle ez den gizakia zeharo marjinalatzen duen gizarteaz hitz egin nahi nuen. Gizarte honetaz, alegia. Bakarrik edo ka-lean bizi direnei eskaintzen diegun tratuekin larritu izan naiz beti. Arrazakeria azaleratzen ari da gurean. Inori ez zaio axola Michael Jordan bizilagun izatea beltza izanda ere, baina pateran datorkigun beltzarekiko ez dugu inongo gupidarik.

**Algun día será hoy izenburuko filma prestatzen ari zara orain.**

Nesken barnetegi batean giro-tutako istorioa da. Gidoiaren bigarren bertsioa idazten ari naiz. Drama bat egin ondoren, aurreko film laburretako suspentse psikologikora itzultzeko gogoz nenbilen. Zinema mota honek istorioak bisualagoak egiten baititu, ikuslearekin apur bat jolasteko eta entretenimendu hutsa bilatzeko aukera eskaintzen baitu. Ekoizpen garestia izango dela beldur naiz. Oraingo ez dut aktoreen izenik baina mendialdean, lanbro artean, girotua izango dela aurreratutako diezazuket... Galizian, Portugalen eta Euskal Herrian errodatzeko asmoa dut. Baina ingurune ezezagunetan, iradokitakoa agerikoa baino sitnesgarriagoa baita.

## GAZTELEKUAK ▶

### Ikastaroetan izen emateko epea zabalik

Dantza, musika, antzerkia, zinema eta argazkigintza ikasteko aukera egongo da

ONINTZA ODRIOZOLA

Kontadoreseko eta Martuteneko Gaztelekueetan hainbat ikastaro egiteko aukera izango da martxotik maiatzera. Dantza, antzerkia, musika, zinema edota argazkigintza ikasi ahal izango dira. Izena emateko epea otsailaren 8an ireki zen, eta zabalik egongo da ikastaroetako leku guztiak bete bitartean.

Ikastaroei buruzko informazioa eskatzeko edota izena emateko bi aukera daude: bertara joatea edo 943 39 01 22 telefonora (Kontadoreseko Gaztelekua) edo 943 46 64 92 telefonora (Martuteneko Gaztelekua) deitzea.

Hizkuntzari dagokionez, ikastaro batzuk euskaraz eta gaztelaniaz egin ahal izango dira. Beste batzuk, ordea, gaztelania hutsez baino ez dira izango.

### Bidebietako ikastaroak

Antzerkian edota argazkigintzan hasi edo sakondu nahi duen edonork aukera polita izango du Bidebietako Kontadoresean. Musika arloan *funky* estiloko landuko dute. Zinemari dagokionez, japoniar filmeak aztertuko dituzte.

### Martuteneko ikastaroak

Martutenen *Capoeira* dantza brasildarra edo *Swing* dantza estiloko ikasi ahal izango dira.

Malabareek, perkusioak eta didgeridoo musika tresnak ere, lekua izango dute ikastaro hauetan.

**Zurumuru**

Kioskoa - News Stand - Edicola - Kiosko - Budka - Kiosk - Sötluturm - Quiosc - Kiosque  
Bretxa merkataritza gunea - Bulebarra z/g  
2003 Donostia. Tel.: 943 427977



ALKANDORA  
ARROPADENDA

Andia 1 Tel.: 943 420 349 DONOSTIA

La Cuchara de  
San Telmo

Koilara eta  
Miniaturako  
sukaldaritza

Abuztuaren 31 katea, 28  
(Atzekoa, San Telmorekin bat)  
DONOSTIA

## KONTZERTUA ▶

U2ren  
kontzerturako  
sarrerak salgai

Gaur, 09:00etan, salgai jarriko dira Donostian U2 musika talde irlandarraren kontzerturako sarrerak. Anoetako estadioko 23. atean, 5 leihatila irekiko dituzte. Gipuzkoa Plazako Ikatz argazki denda eta Parte Zaharreko Bilintx liburu denda ere izango dira salgai. Telefonoz erosteko: 902 15 00 25. Inter-tez: [www.ticktackticket.com](http://www.ticktackticket.com).

## ERAKUSKETA ▶

Lander Ganzoren  
irudiak Argazkilari  
Elkartean

Lander Ganzo donostiarraren argazkiak ikus daitezke egunotan Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen Erakusketak pertsona arrunten eguneroko bizitza erakusten du. Poza eta tristezia islatzen dira irudietan.

▶ **Izenburua.** *Ahaztutakoaren irudiak.* ▶ **Non.** Argazkilari Elkartearen. ▶ **Noiz arte.** Martxoaren 2a arte.



Lander Ganzo artista donostiarraren erakusketaren irudi bat.

## EFEMERIDEA ▶

25

urte dira 'La Voz de España' egunkaria itxi zutela. Espainiako Gobernuaren dekretuz itxi zuten, 1980an, *La Voz de España* egunkaria. Gipuzkoako egunkaririk irakurrienetakoa zen arren, agintariek ez zuten begi onez ikusten. Itxieraren ondoren, *El Diario Vasco* kaze-ta bihurtu zen Donostiako eta Gipuzkoako egunkaririk irakurriena. 30.000 aleko tirada iza-tetik 60.000ra pasatu zen.

## AGENDA ▶

## GAUR (OSTEGUNA, 17)

**Musika.** Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Kursaal Auditorioan, 20:00etan.

**Musika.** Dinamic Quartet. Antiguako Branka tabernan, 20:00etan.

**Ikus-entzunezkoak.** Gloria Latasaren *La vendedora de petalos de rosa* ikuskizuna. Groseko Okendo kultur etxean, 19:30ean.

## BIHAR (OSTIRALA, 18)

**Musika.** Gontzal Mendibil. Oreka TX, Rossini Abesbatza, Marife Nogales eta Afrika izango ditu lagun. Kursaal Auditorioan, 20:00etan.

**Musika.** Patxi Sainz kantaria. Antiguako Lugaritz kultur etxean, 20:30ean.

**Musika.** La mujer barbuda. Parte Zaharreko Be Bop tabernan, 23:00etan.

**Musika.** La vacazul. Ilunbe aisialdi guneiko Irish Disco aretoan, 22:00etan.

**Musika.** Alejandro Mingot Trio eta DJ Luis Beltza. Antiguako Branka tabernan, 20:00etan.

**Musika.** Frida Pipol eta Malenkonía musika taldeak.

▶ ekitaldien berri emateko, [agenda@irutxulokohitza.info](mailto:agenda@irutxulokohitza.info) helbide elektronikoa, 943 467236 telefonoa eta faxa erabili



## Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Kursaallean

**MUSIKA** ▶ Euskadiko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du gaur Kursaalako auditorioan, Orfeon Pamplones abesbatza eta haren eskolaniarekin batera. Oleg Caetani ariko

da zuzendari. Jennifer Larmore kontraltoak ere hartuko du parte. Mahler-en *Hirugarren Sinfonia* joko dute.

▶ **Ordua.** 20:00. ▶ **Non.** Kursaal Auditorioa.

Urgull mendiko Guardetxean, 21:30ean.

**Musika.** Antonio Reyes Trio. Antiguako Kandela aretoan, 23:00etan.

**Zinema.** Mathias Dinter zine-magilearen *Fussball ist unser Leben* filma. Jatorrizko hizkuntzan, gaztelaniaz azpittitulatuta. Groseko Okendo kultur etxean, 18:00etan.

## LARUNBATA, 19

**Musika.** Euskal kulturaren aldeko kantu jira. Parte Zaharreko Bilintx liburudendaren aurrean, 12:00etan.

**Musika.** Mingo y Los Eficaces. Antiguako Kandela aretoan, 23:00etan.

**Antzerkia.** *Xomorroak*. Txalo taldeak. Altza kultur etxean, 18:00etan.

**Antzerkia.** *Eujenia ardiaren bidaia*. Agerre Teatroak. Antiguako Lugaritz kultur etxean, 18:00etan.

**Antzerkia.** *La tempestad* (gaztelaniaz). Ur taldeak. Antzoki Zaharrean, 20:00etan.

**Dantza.** *Tablao*. Incredacion dantza taldearen flamenko ikuskizuna. Egiako kultur etxean, 20:00etan.

## GLORIA LATASA ▶ GEOGRAFOA-BIDAIARIA

## «Txunditu egin ninduen arrosa petalo saltzaileak»

**Onintza Odriozola** ▶ Gloria Latasak ametsa bete zuen India eta Nepalera bidaia egin zuenean. Orain bertan ikusitakoa erakusten dihardu *La vendedora de petalos de rosa* emanaldia- ren bidez.

**Noiz egin zenuen India eta Nepalera bidaia?**

1997ko abuztuan joan nintzen, 21 egunetarako.

**Zein ondorio atera zenuen bidaiatik?**

Umetan telebistan ikusten nuenaren oso antzekoa dela kontu-

ratu naiz. Herrialde horiei buruzko erreportajeak ikusten nituenean, izugarriak iruditzen zitzaizkidan. Nik neuk zuzenean ikusi nahi nituen.

**Zerk harritu zaitu gehien?**

"Asiako luxua" bezala ezagutzen denak. Batetik, jauregien handitasunak, eta bestetik haien ondoan dauden gauza txikiak. Handitasun eta txikitasun hori neurrigabea da.

**Zer ikas dezakegu bertako- engandik?**

Jendea lasaia goa da, bizitza-

erritmoa eta denbora erritmoa ezberdinak dira. Heriotza ulertzeko ere modu berezia dute.

**Nondik dator *La vendedora de petalos de rosa* izenburua?**

Emakumeen lanbideetan jarri nuen arreta. Eraikuntzan eta errepideetan asko aritzen dira. Hala ere, Tar basamortuaren ondoko herri txiki batean, arrosak saltzen zituen emakume bat topatu nuen. Txunditu egin ninduen emakume hark. Horregatik jarri nion izenburu hori.

**Beste bidaiarik egiteko asmo- rik baduzu?**

Bai, beti dut bidaia egiteko asmoa. Bidaia handiak eta txikiak egitea gustatzen zait. Goierrira noanean ere, bidaiariaren begiek aztertzen saiatzen naiz. Askotan bertan ditugun lekuak ez ditugu ezagutzen eta merezi dute.

▶ **Zer.** *La vendedora de petalos de rosa* ikusentzunezkoa.

▶ **Ordua.** 19:30. ▶ **Tokia.** Okendoko Kultur Etxea.



Indiar emakumea petaloak saltzen. GLORIA LATASA

## INDIA-NEPAL

«Neure begiekin ikusi nahi nituen lurralde haiek; ametsa nuen»

## ARGITALPENA ▶

### 'Anne Franken egunkaria' itzuli du Josu Zabaletak

Anne Franken egunkaria-ren bertsio osoa euskaraz irakur daiteke dagoeneko. Josu Zabaletak XX. mendeko literatura unibertsaleko klasiko ezaguenetakoa itzuli berri baitu. Naziengandik ihesi, Holandako etxe batean ezkutatu zen familia judu baten alaba nerabea izan zen Anne Frank. Bertan idatzi zuen egunkaria.



▶ Izenburua. *Anne Franken egunkaria*. ▶ Egilea. Anne Frank. ▶ Itzultzailea. Josu Zabaleta. ▶ Argitaletxea. Erein. ▶ Orriak. 351

## TELEFONO ZENBAKIAK ▶

### LARRIALDIAK

|                         |            |
|-------------------------|------------|
| <b>SOS Deiak</b>        | <b>112</b> |
| Gurutze Gorria          | 943 222222 |
| DYA                     | 943 464622 |
| Itsasoko Gurutze Gorria | 900 202002 |
| Farmaziak               | 943 429117 |
| Suhiltzaileak           | 080        |

### OSASUNA

|                       |            |
|-----------------------|------------|
| Larrialdiak           | 943 461111 |
| Donostiako ospitaleak |            |
| ▶ Amara               | 943 007400 |
| ▶ Arantzazu           | 943 007000 |
| ▶ Gipuzkoa            | 943 006000 |
| ▶ Psikiatria          | 943 007213 |
| ▶ Larrialdi orokorrak | 943 007053 |
| Poliklinika           | 943 309400 |

### POLIZIA-TRAFIKOA

|              |            |
|--------------|------------|
| Ertzaintza   | 943 288888 |
| Udaltzaingoa | 092        |
| Udal garabia | 943 320658 |

### MATXURAK

|             |            |
|-------------|------------|
| Iberdrola   | 901 202020 |
| Donosti Gas | 943 450200 |
| Naturgas    | 900 400523 |
| Ur matxurak | 943 481050 |
| Euskaltel   | 045        |
| Telefónica  | 1002       |

### GUARDIAKO FARMAZIAK ▶ GAUR

#### EGUNEZ (09:00-22:00)

- ▶ J. B. Mokoroa. Legazpi 7 (Erdialdea). 943 42 48 26
- ▶ M. T. Ruiz-Tapiador. Felipe IV. ren etorbidea 8 (Amara Berri). 943 45 87 95
- ▶ Lanchares-Viejo. Errenteria 10 (Gros). 943 27 95 06
- ▶ A. Ruiz Urkiaga. Serapio Mujika 41 (Bidebieta). 943 39 83 40

#### GAUEZ (22:00-09:00)

- ▶ E. Imaz. Bergara 3 (Erdialdea). 943 42 17 12

### TAXIAK

|                        |            |
|------------------------|------------|
| Radio-taxi Santa Clara | 943 464646 |
| Vallina Teletaxi       | 943 404040 |
| Radio Suitak           | 943 396840 |
| Radio-telefonoa        | 943 426642 |

### GARRAIOAK

|                         |            |
|-------------------------|------------|
| Renfe                   | 902 240202 |
| Eusko Tren              | 902 543210 |
| Hondarribiko aireportua | 943 668500 |

### ERAKUNDE PUBLIKOAK

|                            |            |
|----------------------------|------------|
| Udala                      | 943 400582 |
| Euskararen Udal Patronatua | 943 483750 |
| Foru Aldundia              | 943 482111 |

### EUSKARA, KULTURA

|                           |            |
|---------------------------|------------|
| Behatokia (kexak)         | 902 194332 |
| Bagera                    | 943 467181 |
| Bertsozale Elkarte        | 943 217798 |
| Gipuzkoako Ikastolen Elk. | 943 445108 |
| Euskaltegiak              |            |
| ▶ Hitzez                  | 943 278155 |
| ▶ Legazpi 6               | 943 424366 |
| ▶ Ullialde                | 943 281369 |
| ▶ Urumea                  | 943 464655 |
| ▶ Ilazki                  | 943 424910 |
| ▶ AEK                     | 943 327611 |
| ▶ Monpas Berri            | 943 277465 |
| ▶ Urrats                  | 943 465593 |

## ZINEMA KARTELDEGIA ▶

### TRUEBA (Secundino Esnaola, 2. 943 271 391. Ikuslearen eguna: asteartea)

|                                |                   |
|--------------------------------|-------------------|
| ▶ Million Dollar Baby (JHA)    | 16:45 19:30 22:15 |
| ▶ Sueño de una noche de verano | 17:30 19:45       |
| ▶ Solo un beso                 | 22:15             |

### ANTIGUO BERRI (Zarautz e., 1. 943 219120. Ikuslearen eguna: astelehena)

|                            |                   |
|----------------------------|-------------------|
| ▶ El vuelo del Fenix       | 17:15 20:00 22:30 |
| ▶ Descubriendo Nunca Jamas | 17:30 20:00 22:15 |
| ▶ Million Dollar Baby      | 16:45 19:30 22:15 |
| ▶ El aviador               | 16:45 20:00       |
| ▶ Elektra                  | 17:30 19:45 22:30 |
| ▶ Los padres de el         | 17:00 19:45 22:30 |
| ▶ Mar adentro              | 17:00 19:30 22:15 |
| ▶ Los chicos del coro      | 17:30 20:00 22:30 |

### BRETXA (Arrandegia eraikuntza. 943 421 371. Ikuslearen eguna: asteartea)

|                             |                         |
|-----------------------------|-------------------------|
| ▶ Million Dollar Baby       | 17:00 19:45 22:30       |
| ▶ Alejandro Magno           | 16:00 19:10 22:20       |
| ▶ Los padres de el          | 16:00 18:15 20:30 22:45 |
| ▶ El vuelo del Fenix        | 16:00 18:15 20:30 22:45 |
| ▶ White Noise               | 16:00 18:10 20:15 22:20 |
| ▶ Amor idiota               | 16:00 18:00 20:00 22:00 |
| ▶ Bob esponja               | 16:15 18:30             |
| ▶ La memoria de los muertos | 20:15 22:15             |
| ▶ Espias supersecretos      | 16:10 18:30 20:30 22:30 |
| ▶ Elektra                   | 16:00 18:00             |
| ▶ Mar adentro               | 20:00 22:30             |

### PRINCIPE (San Joan, 10. 943 421 247. Ikuslearen eguna: asteazkena)

|                     |                   |
|---------------------|-------------------|
| ▶ Domicilio privado | 17:15 20:00 22:15 |
| ▶ Ray               | 16:45 19:30 22:15 |
| ▶ Closer            | 17:00 20:00 22:00 |

## ZINEMA KRITIKA ▶ IÑAKI LAZKANO

# Hazi nahi ez zuen ameslaria

**Filma.** *Descubriendo Nunca Jamas*.

**Generoa.** Drama.

**Herrialdea, urtea.** AEB/Erresuma Batua.

**Zuzendaria.** Marc Forster.

**Aktoreak.** Johnny Depp, Kate Winslet.

**Iraupena.** 106 minutu.

Fantasia eta irudimena galdu baduzue, kortsu zaretzen seinale. Hala bada, ez ezazue film hau ikusi, arren. Ez duzue-eta sekula Neverland aurkituko. Hazi nahi ez duten haurren aberria baita Neverland. Amets egitea zilegi dela sinesten dugun guztion lurraldea. Piraten, indiarren eta maitagarrien artxipelagoa... itxaropenaren ortzadarra. Finean, Peter Pan matxinoa besterik ez da. Heldutasunaren diktadura gordina-  
ren aurka jaiki egiten den antiheroia. Aske izateko eta helduen mundua aldatzeko borrokan inoiz etsi ez duen haurra. Hazi nahi ez duen ameslaria. Allan Knew entzutetsuaren *The Man Who Was Peter Pan* antzezlanaren egokitzapen ederra dakarkigu Marc Forster zinemagileak. Bertan, James M. Barrie idazle eskoziarraren bi-

|                                  |                   |
|----------------------------------|-------------------|
| ▶ La vida es un milagro          | 16:45 19:45 22:30 |
| ▶ Carta a una mujer desconocida  | 17:00 20:00 22:00 |
| ▶ El aviador                     | 17:00 20:00       |
| ▶ Descubriendo Nunca Jamas       | 17:15 19:30 22:00 |
| ▶ Leon y Olvido                  | 17:15 19:30 22:00 |
| ▶ La casa de las dagas voladoras | 17:15 19:30 22:00 |
| ▶ Largo domingo de noviazgo      | 17:00 19:45 22:30 |

### WARNER (Ilunbe gunea. 943 308 170. Ikuslearen eguna: astelehena)

|                             |                         |
|-----------------------------|-------------------------|
| ▶ Million Dollar Baby       | 17:00 19:30 22:15 00:50 |
| ▶ Espias supersecretos      | 17:30 19:30 22:00 00:01 |
| ▶ El aviador                | 17:30 21:00 00:15       |
| ▶ Los padres de el          | 17:00 19:30 22:00 00:30 |
| ▶ White Noise               | 17:15 19:45 22:15 00:30 |
| ▶ Los padres de el          | 18:30 21:00 23:30       |
| ▶ Elektra                   | 17:15 19:45 22:15 00:30 |
| ▶ Closer                    | 17:15 22:30             |
| ▶ Largo domingo de noviazgo | 19:45                   |
| ▶ El grito                  | 00:45                   |
| ▶ Descubriendo Nunca Jamas  | 17:30 20:00 22:30 00:45 |
| ▶ El vuelo del Fenix        | 17:30 20:00 22:30 00:50 |

### LAUREN (Urbil gunea - Usurbil. 943 376 557. Ikuslearen eguna: astelehena)

|                            |                         |
|----------------------------|-------------------------|
| ▶ Ray                      | 16:00 19:00 22:00       |
| ▶ El aviador               | 16:45 20:45             |
| ▶ Miercoles de ceniza      | 20:30 22:40             |
| ▶ Elektra                  | 16:00 18:15             |
| ▶ Closer                   | 16:15 18:20 20:30 22:40 |
| ▶ Los padres de el         | 16:30 19:15             |
| ▶ El vuelo del Fenix       | 16:45 19:30 22:15       |
| ▶ Descubriendo Nunca Jamas | 16:05 18:20 20:30 22:40 |
| ▶ Million Dollar Baby      | 16:00 19:00 22:00       |

zipenak eta sentimenduak sotiltasun handiz biluzi egiten dizkigu *Monster's Ball* apartaren egi-leak. Istorioa XX. mende hasieran dago girotua, Londres ospelean. Oharkabe, abandonatu duen inspirazioarekin egingo du topo Barrie bakar-tiak Kensingtongo Lorategietan. Sylvia alargu-naren eta haren semetxoaren adiskide egin eta gu-txira jaioko baita *Peter Pan* klasikoa.

Samurtasun xaloz ehundutako drama fina da *Descubriendo Nunca Jamas*. Aktore taldearen lana bikaina da. Freddie Hignome txikiarena, bereziki. Barrie bera da, baina, Peter Pan benetako. Sakonean, sortzailearen arima urratuaren isla baita Disneyk hilezkor egin zuen pertsonaia.

Hazi nahi ez duen ameslariaren istorioa ez ezik, heriotzaren samina leuntzeko asmatutako ipuin zirraragarria ere bada filma, ezbairik gabe. Neverland zeru paganoaren bitartez uxatu nahi baitu heriotzarekiko beldurra Barrie irudimen-tsuak. Hazi ala ez, haur guztiok baitugu iraungi-tze-data. Krokodrilok irentsitako erlojuaren taupada mekanikoek uneoro oroitarazten digu-ten bezalaxe.

# ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira  
647 319 761

donostia@irutxulokohitza.info

# Pakitoren koadrilakoak

**ERAKUSKETA** ▶ Bizkaiko Golkoko izurde eta baleei buruzko erakusketa antolatu du Ambar elkarteak; hilaren 28ra arte izango da ikusgai Lugaritzen



Izurde arrunta Bizkaiko Golkoko uretan. Uste baino aniztasun handiagoa dago gure uretan. AMBAR

**ASIER COLOMA**

**B**aleak, izurdeak, zeroiak, orkak... Itsasoko ugaztun mordoia etorri da gura. Izan ere, Ambar Itsas Faunaren Ikerketa eta Babeserako elkarteak argazki erakusketa antolatu du Lugaritz kultur etxean.

Elkartearen helburua zeta-zetaz egaztutzea dela azaldu digu elkarteak biologo Isabel Guzmanek: «Bizkaiko Golkoko aberastasunaren berri eman nahi dugu. Erakusketan 40 argazki inguru bildu ditugu; guztiak Bizkaiko Golkoan egin dakoak. Argazkiok ikusita, jendeak itsasoa zaindu behar dela argiago izango du».

Espezie batzuk gure itsasotik aspalditik ohikoak diren arren, beste batzuk berriagoak



Lugaritzeko erakustaretoa.

dira. «Azken hilabeteotan, orain arte inguruotan ikusi gabeko animaliaak aztertu ditugu. Hegazti eta izurde tropikal batzuk, esaterako. Baliteke animalia hauek lurraren berotzearen ondorioz etorri izana», Guzmanen iritziz.

Gasteizen, Bilbon, Arrasaten, Durangon eta Bermeon ere izan da erakusketa. «Jendea ahoa bete hortz geratzen da kostaldetik 20 miliara halako espezieak daudela ikusita», azaldu digu. Erakusketa astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:30era, izango da ikusgai.

## AGURRAK ▶



**ZORIONAK**

Garazi Goñi. Zorionak zure urtebetetzean. Asier, Manex, Nerea eta Xabat.



**ESKERRIK ASKO**

Auzoetako langileei: Mila esker zuen laguntza eskaintzeagatik. Eneko.

## HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

‘Click Donostia’ argazki denda (Peñaflorida, 6)  
 ‘Foto Miki’ (Matia kalea, 3)  
 ‘Bizarrair elkarte’ (Larratzoko kultur etxean)  
 ‘Dam’ arropa denda (Narrika, 23)  
 ‘Easo liburudenda’ (Mandasko dukea, 9)

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!

**INTXAURRONGO IKASTOLA**

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA  
 “D” eredu  
 Zarategi pasealekua, 48  
 Tel.: 943 28 51 10- faxa: 29 77 28  
 Posta elek.: 012367aa@hezkuntza.net

Koordinatuak eta elkarlanean

2 eta 16 urte bitarteko ibilbide publikoa

**INTXAURRONGO HEGOA Ikastetxe publikoa**

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA  
 “B-D” ereduak  
 Baratzategi kalea, 19  
 Tel.: 943 29 70 23 • Faxa: 943 27 90 29  
 Posta elek.: 013079aa@hezkuntza.net

**AITOR IKASTOLA**

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA  
 “D” eredu  
 Konkorrenea, 5  
 Tel.: 943 28 21 32 - Faxa: 943 27 56 25  
 Posta elek.: aitori@euskalnet.net

**LAUAIZETA IKASTOLA BHI**

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA  
 “D” eredu  
 Gabriel Aresti, 165  
 Tel.: 943 293005-291024  
 Faxa: 943 293005  
 Posta elek.: 012958aa@hezkuntza.net